Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Kontxita Igerategi Santa Cruz

Urnieta, Gipuzkoa
(1931-2014)



Aurkibidea

Biografia



<body> Urnietako Matxo tabernan jaio zen eta Urnietan bertan bizi izan da ia beti. Bere aita zenari deitzen zioten "Matxo", baina ez edozeinek, aitari ez baitzitzaion ezizena asko gustatzen. Gurasoak etxez aldatu ziren bera jaiotzerako eta taberna ireki zuten Idiazabal kalean. Ama andoaindarra zuen eta aita urnietarra. Sei senideren artean gazteenaren aurrekoa zen bera. Sei urtetik hamalaura arte Urnietako eskola publikoetan ibili zen. Hala ere, etxeko lanetan gogor aritu behar izaten zuen eta gustatu ere egiten zitzaion. Hogeita sei urterekin ezkondu eta Hernanin bi urtez bizi izan baziren ere, Urnietara joan ziren berehala han gelditzeko.

Zintak

URN-018

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-01-29
- **Iraupena**: 104 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Dolarean sagardoa egiten laguntzen

- **Erref**: URN-018/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:05:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:
Garai hartako dolarea eta gaur egunekoa oso ezberdinak dira. Dolareko lana nolakoa zen kontatzen du. Artean umeak zirela han ibiltzen ziren gurasoei sagardoa egiten laguntzen eta jolasean.

2. Lan-klase guztiak egin ditu Kontxitak

- **Erref**: URN-018/004
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:06:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:
Etxeko lan klase guztiak egin izan ditu Kontxitak. Neskatoa zelarik arropa garbitzera ere joaten zen garbitegira aitaren bota handiak jantzita. Ura hotza egoten zen neguan eta eskuak suminduta geratzen zitzaizkien.

3. Soldaduentzako galtzerdiak egiten eskolan

- **Erref**: URN-018/005
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:07:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Gogor egin du lan Kontxitak, baina ez du horren damurik, hala ere pozik bizi izan baita. Eskola gutxi ikasi zuen. Erdaraz izateaz gain, soldaduentzako galtzerdiak egiten ematen zuten denbora.

4. Sagardoa botilaratzen goizean goiz jaikita

- **Erref**: URN-018/007
- **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 00:07:35. **Bukatu**: 00:09:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gobada egitera garbitokira joaten zen. Sagardoa botilaratzen ere goizean goiz hasita jarduten zuen. Lan ikaragarri egin izan du. "Hura bai ez zela bizia!" dio barrezka.

5. Plantxan hiru eratara

- **Erref**: URN-018/010
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:12:02. **Bukatu**: 00:13:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Ura eta argia betidanik ezagutu du. Plantxa: hiru sistemak ezagutu ditu, sutan berotutako plantxa, ikatzarekikoa eta elektrikoa. Azken hau aurrerapen handia izan da. Sukaldean ere egiten zuen. Tabernan, sagardotegian zein etxean denetatik egiten zuen. Konforme bizi zen halere.

6. Lau erregelak bai, baina kebradoak ezin buruan sartu

- **Erref**: URN-018/011
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:13:14. **Bukatu**: 00:14:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Bizitzak berak erakusten du gehien. Liburu bakarretik ikasten zen orduan, entziklopediatik. Denetik zuek hark: Matematika, Geografia, "Historia Sagrada"... Orain ilobak liburuz beteta ikusten ditu. Lau erregelak bai baina kebradoak (zatikiak) ezin zituen buruan sartu.

7. Jolas orduan elkarrekin neska eta mutil

- **Erref**: URN-018/012
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:14:26. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
14 urte arte ibili zen eskolan, sei-zazpi urterekin hasita, eskola publikoan. Adin guztietakoak nahastuta. Goian neskak eta behean mutilak. Jolas-orduan, ostera, denak elkarrekin.

8. Eskolan paretari begira zigortuta

- **Erref**: URN-018/013
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:17:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Maisu-maistren izenak. Doña Franciscak beti "mirando a la pared" edukitzen zuen. Besoak zabaldu eta liburuak ipinita ere bai. Oso mugitua zen eta zigortuta egoten zen sarri. Lotsagabe samarra zela onartzen du.

9. Ama "eltzeko tapa"

- **Erref**: URN-018/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:19:12. **Bukatu**: 00:20:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:
Ama onegia zuten. Amarekin zuten konfiantza. Ama "eltzeko tapa" zela esaten zen. Berari kontsultatzen zioten dena, sekula ez aitari.

10. "Matxonea", aitari gustatzen ez zitzaion etxe-izena

- **Erref**: URN-018/017
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:22:55. **Bukatu**: 00:24:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:
Matxonea esaten zioten beren etxeari. Aita sokatiran ibilia zen, eta gizon indartsua zenez, nonbait hortik etorriko zaio izena. Baina ez zen aitaren aurrean izen hori esaten, haserretu egiten baitzen.

11. Nolakoa zen Matxonea

- **Erref**: URN-018/018
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:24:16. **Bukatu**: 00:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak

Laburpena:
Matxonea nolakoa zen deskribatzen du. Lehenengo pisuan bizi ziren beraiek. Bigarrenean, gerra aurretik euskal teatroak eta egiten ziren tokia zegoen. Gerra ostean Falangekoen "Margaritak" sartu ziren. Atso sorgin batek eramaten zuen. Behean euren taberna eta sagardotegia.

12. Arropa garbitzen kantari

- **Erref**: URN-018/020
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:27:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Beti izaten zuten txerria etxean. Oiloak ere uste du baietz. Labaderoa ere bazuten. Aitak behin esan ziona arropa garbitzen kantari zebilelako.

13. Errepide nagusian jolasean

- **Erref**: URN-018/021
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:27:35. **Bukatu**: 00:28:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Errepide nagusian ibiltzen ziren futbolean, pilotan edo beste edozein jolasetan. Gogoan ditu futbolean ibiltzen ziren mutilen aurpegiak; horietako zenbait gerran hil edo fusilatu zituzten.

14. Dutxak aberats-etxetan bakarrik

- **Erref**: URN-018/022
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:28:35. **Bukatu**: 00:30:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Labaderoan garbitZen eta bainatzen ziren. Oso berandu arte ez zuten dutxarik izan etxean. Aberats-etxetan ziren bakarrik dutxak. Nolakoa zen etxeko labaderoa. Ez daki zergatik joaten zen kanpoko labaderora etxean izanda.

15. Anila arropa zuritzeko

- **Erref**: URN-018/023
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:30:26. **Bukatu**: 00:33:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:
Herriko labaderoa jendez bete-betea egoten zen. Anila erabiltzen zen arropa zuritzeko. Orain ezin du anilik inon topatu. Anilaz zuri-zuri geratzen da arropa eta oraingo deterjentearekin, berriz, horixka. Lagarto eta Chimbo ziren orduko xaboiak. Lehenago bazegoen beste bat urarekin nahastean aparrik ateratzen ez zuena.

16. Beharrak erakutsitakoa daki Kontxitak

- **Erref**: URN-018/024
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:33:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Beharrak erakusten omen du bizitza nola eraman. Dakien pixka beharrak erakutsitakoa omen da. Aitak mutil bati esaten ziona: "biharrak, deituiok eta erakutsiko dik!". Oraingo gazteak ez omen dakite bizitzen.

17. Arropa gutxi eta sekulako hotza neguan

- **Erref**: URN-018/026
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:34:18. **Bukatu**: 00:36:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Negu eta uda arropa berberarekin ibiltzen zen. Abarkak erostea galarazi egin zion aitak. Gomazko katiuskak ere erabili izan zituen. Sekulako hotzak pasatzen zituen neguan. Ez zegoen ez kalefakzio eta ez ezer. Lotarako poltsa beroa eta galtzerdiak behar izaten zituen. Orain berriz ezer gabe egiten du. Eskolara joateko ere jertseren bat izango zuten, baina berokirik-eta horrelakorik ez berandu arte.

18. Belaun barrenerainoko prakak baserriko mutikoek

- **Erref**: URN-018/028
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:37:02. **Bukatu**: 00:37:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Belauna baino beheraxeago heltzen ziren prakak janzten zituzten baserriko mutikoek orduan. Orain modara etorri dira berriz. Janzkera kontuak ahaztuta ditu.

19. Emakumeen janzkera eta orrazkera

- **Erref**: URN-018/030
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:38:48. **Bukatu**: 00:40:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:
Buruko painelua, mantal aurreko beltza eta abarkak, apain asko etortzen ziren baserriko emakumeak. Orrazkeragatik "Arriba España" deitzen zioten emakumearen aipamena. Permanentea modan egon zen orduan. 17-19 urterekin joan zen lehenengoz ile-apaindegira, Donostiara.

20. Babarrunak egunero

- **Erref**: URN-018/031
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:40:42. **Bukatu**: 00:42:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Babarrunak, azak, lentejak... orduko jana. Lentejek harri ugari izaten zuten. Babarrunak egunero, eta jaiegunetan zopa eta haragi egosia piperrekin. Gabonetan oilasko errea, aza-olioa, mazapana. San Josetan arkumea. Garbantzua ere jaten zen azekin.

21. Txerriaren parte onenak etxeko nagusiarentzako

- **Erref**: URN-018/032
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:42:42. **Bukatu**: 00:44:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Txerria hiltzen zenean zati onenak nagusiari eman behar izaten zitzaizkion. Etxerako urdaia geratzen zen. "Txerrimonik" esaten zitzaion opari gisa auzotar eta senideen artean banatzen zen txerrikiari. Zilarrezko duroa eman zion amonak behin opariarekin joan zenean.

22. Oso gazterik hasi zen sagardoa edaten

- **Erref**: URN-018/034
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:45:10. **Bukatu**: 00:47:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Errege-sagarrak apartatzen ibiltzen zen dolarean, ez zitzaiolako aitari sagardotarako gustatzen. Pitarra edaten zuten umeek eta sagardoa aitak. Denek hari begira inbidiatan. Berak gaztetatik edan izan du sagardoa. Inoiz zipotza (txotxa) atera eta zuzenean edaten zuten. Behin ere ez dio kalterik egin sagardoak.

23. Olioa urrearen prezioan

- **Erref**: URN-018/035
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:47:58. **Bukatu**: 00:49:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

• Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:
Denetik saltzen zen denda bat eta harategia zeuden Urnietan. Gogoan du ama Tolosara joan izan zela olioa erostera eta nolako dirutza ordaintzen zuen. Seboarekin eta margarinarekin ere egiten zituzten frijitze lanak oliorik ez zenean.

24. Alaba Gurutze torturatu eta hil

• **Erref**: URN-018/038
• **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:49:55. **Bukatu**: 00:51:02
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
• Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Gerra denboran hainbat herritar fusilatu zuten Francozaleek. Askoz geroago, beren alaba Gurutze torturatu eta hil egin zuten. Orduko legeak jarraitzen omen du orain.

25. Gerran, hainbat fusilatu eta hildako Urnietan

• **Erref**: URN-018/039
• **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:51:02. **Bukatu**: 00:52:15
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
• Iritziak

Laburpena:
Anaiak anaien kontra ibili ziren gerran; eta orain, berriz sortuko balitz ere, berdina gertatuko omen litzateke. Berak ezagututako bost edo sei urnietar fusilatu zituzten. Gerran hil ziren beste hainbat soldadu ere ezagutu zituen.

26. Etxean egindako ikurrina guardia zibilek ostu

• **Erref**: URN-018/040
• **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:52:15. **Bukatu**: 00:54:28
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Gurutzek (torturapean hil zuten alabak) eta biek egin zuten ikurrina ostu egin zieten etxetik guardia zibilek. Alaba etxetik eraman eta bi egunera ekarri zuten gorpua. Ez zuen ezer txarrik egin alabak. HBko ideiak izateagatik garbitu zuten.

27. Soldaduentzat galtzerdiak egiten eskolan

• **Erref**: URN-018/044
• **Iraupena**: 0:01:44. **Hasi**: 01:00:44. **Bukatu**: 01:02:28
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Soldaduentzat galtzerdiak egiten jardun zuten eskolan. Bestela, oso labore gutxi ikasten zuten. Agian monjetan ikasiko zuten. Oso eskola gutxi ikasitakoa da Kontxita.

28. Ume-jolasak

- **Erref**: URN-018/045
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:02:28. **Bukatu**: 01:03:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Egiten zituzten jolasak: "San Sebastián a buena" (morroka), paperezko pilotekin, gerezi-hezurrekin, kurkuluxetan (tortoloska). Oraingoek ez dakite kurkuluxak zer diren ere.

29. Kurkuluxetan

- **Erref**: URN-018/046
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 01:03:28. **Bukatu**: 01:06:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Kurkuluxetan nola jolasten zuten azaltzen du, armairuan gordeta dituen hiru kurkulux aterata. Arkumearen kurkuluxak gordetzeko ohitura du. Oraingoak ez dakite kurkuluxak zer diren ere. Gorde-gordeka eta sagar lapurretan ere aritzen ziren

30. Zirrindolarekin jolasean

- **Erref**: URN-018/047
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 01:06:22. **Bukatu**: 01:08:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:
Kontxita asko ibiltzen zen zirrindolarekin jolasean errepide eta kaleetan barrena. Bazuen anaiak egindako alanbre berezi bat zirrindola gidatzeko.

31. Zepoarekin txorriak harrapatzen

- **Erref**: URN-018/048
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:08:15. **Bukatu**: 01:09:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Natura » Fauna

Laburpena:
Elurra zenean zepoarekin txoriak harrapatzen egiten zuten. Nola, kontatzen du. Ez da oroitzen gero jan egiten zituzten edo zer.

32. Kirkilak harrapatzen

- **Erref**: URN-018/049
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:09:45. **Bukatu**: 01:11:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Fauna » Natura » Basoko animaliak » Zomorroak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Kirkirak (kirkilak) harrapatzen ere jarduten zuten, zulora pixa egin eta horrela. Etxean beti izan dira kirkilak kanturako, alaba gazteenak baserriko mutikoei ikastolan erosita.

33. Karburoarekin jolasten

- **Erref**: URN-018/051
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:12:32. **Bukatu**: 01:13:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:
Lurrean zulo bat egin, karburoa ipini ("azufrea" dio Kontxitak), ura bota, gainean piper-pote bat jarri zulotxo batez, sua hurbildu zulora eta potea airean joaten zen indar handiz.

34. Sakristauari basoerdia ordaindu erromeria luzatzearren

- **Erref**: URN-018/053
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 01:14:15. **Bukatu**: 01:16:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:
Kanpoan festa gutxi egindakoa da Kontxita. Sakristauak abemarietakoa jotzen zuen arratsaldeko zazpietan-edo, baina dantzaldia apur bat luzatzearren basoerdia ordaintzen zioten. Beranduenez ere bederatzietarako hel zitezkeen etxera.

35. Atari batean ezkutatu dantza lotuan egin ahal izateko

- **Erref**: URN-018/054
- **Iraupena**: 0:01:36. **Hasi**: 01:16:50. **Bukatu**: 01:18:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Hernanira joan behar izaten zuten dantza lotuan egitera, apaizak galarazita baitzeukan Urnietan. Urnietako festetan ere, arkupeetako atari batean sartu behar izaten zuten dantza lotuan ibili ahal izateko. Erretorea ibiltzen zela begiratzen esaten dute.

Transkripzioa
-Orduan edozeinen aurrean dantzan juntu egitea eta...
-Keba. Bai, Hernania juten giñan gu, Urnietan ez zeon itteik eta Urnietako erretoriak esaten zun Hernania juten zanak pekatu mortala itten zula, han alkarri eutsita dantzan ibiltzen giñala ta. Bai. Gu hoi nobiotan hasi baiño leheno esaten zun, ni ez dakit zenbat aldiz jungo nitzan Hernania dantzaa gaztetan. Ta geo san Migeletan hemen [...] bazuen , klaro, hor tabernan ezaunak zian danak; zarrak edo gaztiak edo denak-eta. Eta esaten zien gaiñea, goazen dantzaa baltsian ibiltzea. Bai, eta baltsian nun?, zimitoriua...; zimitoriuan ez, aiuntamentukuan azpin ibiltzen giñan, ate haundi bat zun eta baltsian ibili nahi zuna ati hartan sartu ta lau edo bost pareja, segi atea ta. Hu!, komeri earrak ibiltzen giñun guk, e. Ez dakit zenbat urte izango nittun nik ordun. Hamasei edo, hamazazpi edo.
-Ta han gordeta...
-Balsian, eta tabernaa etortzen zian gizonakin. Gizonak, mutil gazteik ez zan etortzen. Gizonakin ibiltzen giñan, bi edo hiru dantza in eta korri ostera tabernaa ta. Esaten zuen, nik ez nun behiñ'ee ikusi baiño erretoria ibiltzen zala baltsian zein ote zan bijilatzen. Esan itten zuen, ez dakit, nei ez zat egokittu behiñ'e.
-Erretoria bakarra ez seguraski.
-Igual, beste batzuk'e igual.
-Beti izaten da herrin.
-Herri [guztietan] izaten da bai, saltseron bat izaten da. Baiño hoi esan izandu du, Hernania juten zana pekatu mortalen bizitzen zea, han alkarri eutsita dantzan ibiltzen ziela ta. Segi...

36. Hernaniko plazako dantzaldia

- **Erref**: URN-018/055
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 01:18:26. **Bukatu**: 01:19:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Hernaniko Tilosetan sekulako dantzaldia egiten zen igandero. Donostiatik eta denetik etortzen zen jendea. Beraiek ere joaten ziren. Dirua ordaindu behar izaten zen dantzan egiteko. Hernaniko orkestinak jotzen zuen.

37. Ikaragarri aldatu da Urnieta

- **Erref**: URN-018/058
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 01:21:43. **Bukatu**: 01:23:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Dena belazeak ziren Kontxitaren etxe inguruan. Belarra biltzen laguntzen zien auzoko emakume batek. Gorde-gordeka pozik ibiltzen ziren jolasean. Orain dena etxez bete da. Ikaragarri aldatu da Urnieta. Ia ez zegoen saltokirik Urnietan. Farmazia ere gerora jarri zen.

38. Tinta eta lumaz idazten

- **Erref**: URN-018/061
- **Iraupena**: 0:01:33. **Hasi**: 01:32:00. **Bukatu**: 01:33:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:
Etxean ez zen dirurik luma-punta berriak erosteko, eta hautsiekin ibili behar. Betun kaxa batean erabiltzen zuen lapitza eta klariona eta borragoma (kortsearen botoia). Luma eta tintaz idazteko orduan izaten ziren komeriak.

Transkripzioa
-Eskolan plumakin eskribittu bihar izaten zan, gooratzen naiz tinterua, holako tintero ttiki bat, askotan ezta tintik'e eskolan, aizu. Tirrrik eta tarrrrak eta, nola ikasiko gendun ba. Punta puxkatu, gue ama gaxua nola izango zun ba punta berriya erosteko dirua. Tirritt eta, jesus! Oaingo boligrafuak izango bazian, ene! Ta borragoma, borragoma badakizu? Lustre kajak izaten zien ordun klisk! itten zienak. Oain ez dakit [badian] oain. Gantxo bat zuen eta klisk ein eta irikitzen zienak. Lustre kaja batian, goma puxkat, tiza puxkat eta lapitz puxkat, [...] zenbateaiñokua. Holakoxe kaja ttiki batian. Eta borragoma ze izango? Korsiak, garai bateko korsiak botoiak izaten zittuen galtzerdiei eusteko. Halako botoiak. Guk ez gendun besteik, nik ez nun beste borragomik. Nik borragomik ez det ezautu nik. Harekin. Edo bestela ogi-mamiakin. Ogi-mamiakin lapitza, baiño tinta, tirrri, jesus. Lapitzakin zeatik puntak puxkatzen, ez gendakin ta. Ez ziuen eakutsi nola eskribitzen zan. Tintetan bustita, ura izaten du eta batez, ez ura ta ez tinta. Jesus!, zulatuk..., oi ene, oi ene!...

39. Oso apain jantzita komunio handia

- **Erref**: URN-018/063
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 01:33:44. **Bukatu**: 01:35:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

• Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Komunio handia etxekoandreak oparitutako soinekoarekin egin zuen, 11 urterekin. Oso apain joan zen. Elizako liburua, eskularru zuriak eta abar. Gero bazkaria. Hori izan zen erregalu bakarra, ez oraingo umeak bezala.

40. Ezteiak

• **Erref**: URN-018/064
• **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 01:35:45. **Bukatu**: 01:37:20
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Soineko beltz oso polit batekin ezkondu zen. Takoizko zapatak. Fagollagako jatetxean bazkaldu zuten. 40 bat lagun ziren senide eta lagunen artean.

41. Arreoa

• **Erref**: URN-018/065
• **Iraupena**: 0:02:08. **Hasi**: 01:37:20. **Bukatu**: 01:39:28
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
• Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Arreo oso txikia zuen berak. Orduan arreo handia zuenak etxean jartzen zuen erakusgai eta lagunak ikustera joaten ziren. Arreoan zer arropa egoten zen azaltzen du.

42. Konforme bizi da Kontxita

• **Erref**: URN-018/067
• **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 01:40:26. **Bukatu**: 01:41:46
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

• Iritziak » Bizitzarekiko ikuspegia

Laburpena:
Konforme bizi izan da Kontxita, ezeren inbidiarik gabe. Inbidiatan bizi den jendea ezagutzen du. Diruak ez du dena egiten.

Transkripzioa
-Ni konforme bizi izandu naiz nee denboa guztin, sekulan ez det ezen inbirik izandu. Ta oain gutxiyo gaiñea. Ez dakat ezen inbirik. Zeatik inbiriya duen jentiak ikusten dittut nik, zea. Bat izan eta bi nahi dittuenak eta bi izan eta lau nahi dittuenak. Nik baldin badet batekin koforme eta bi baldin badittut pues ya está. Hiru ezin dittut, pues ya está. Hiru ezin dittu, pues batez. Kitto. Nee biziya holakotxia izandu da.
-Aberatsa, daukazanuakin konform...
-A, bai, ni bai. Nik sekula ez diyot exijitu iñorri ezer. Hau bihar det /bihet/ eta hau

bihar det /bihet/. Ahal baldin badet, bien, ez badet? Bueno... Kontentu detenakin. Eta ez zat iruitzen ni baiño hobeto iñor bizi danik. Ta diru gutxi deula, baiño diruak ez du dena eitten. Asi ke...
-Laguntzen du baiña.
-Laguntzen du baiño ez da zoriontsu izaten diru gehien in duna [gehienekin dona], e. Gue Agustinek askotan, "Ze mouz bizi zea?" "Ni oso ondo, oso ondo bizi naiz, Agustin". Asi ke.
-Ba eutsi horri. Segi bizkor.
-A, bai. Ahalegiñak... Bueno, urtiak dittegu ta ez dakigu noiz jungo gean beste mundua edo... Hoi're ez zakiu zer dan baiño bueno.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-27

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com